

maiatzaren lehena 2009

Maiatzaren Lehenean langile klasearen festa eguna ospatzen dugu. Okerren daudenekin gure elkartasuna adieraziz, lan eta bizi baldintzak hobetzeko xedez, kolektibotzat elkar errekonozitzen dugun gizarte klasearen eguna da. Era berean erreibindikazio eta gure gizartean ematen den aberastasunaren banaketa bidegabea salatzen dugun eguna ere bada.

Aurtengo Maiatzaren Lehenak gure sindikatua mobilizaziotan murgildurik aurkitzen du, Maiatzaren 21erako deituriko **Greba Orokorren** atariko mobilizazioetan. Finean, grebara deitzeko makina arrazoi daude.

Enplegu-suntsiketa eta patronalaren xantaiari aurre egingo diegu. Langile asko ari da lan merkatuko egoeraren ondorioak nozitzen: soldata baxuak, behin behinekotasuna, bereizkeriak, bermerik gabeko azpikontratazioa, lan istripuak, eta espedienteekin edo gabe mugarik gabeko kaleratzeak. Hori gutxi balitz, etekin itzelak metatu ondoren, patronalak beldurra darabil negoziazio kolektiboa xantaiatzeko eta lan baldintzak narriatzeko.

ELAn argi dugu soldatak eta enplegua ez direla, inolaz ere, krisiaren errudunak. Enpresarien etekinak eta espekulazioa dira errudunak, beti ere gobernuak beste alde batera begiratu dutelarik, kasurik onenean. Langile klaseak sortu ez duen egoeraren pagatzaile izan ez dadin borrokatuko dugu. Errealitatea guztiz alderantzizkoa da, hain justu. Soldata mailak beheratzen badira, krisia sakonagoa izango da eta lanpostu gehiago galduko da. Soldatak jaisteak helburu bakarra du: enpresarien etekinak bere horretan mantentzea.

Langile klasearen aldeko politika publikoak aldarrikatuko ditugu. Azken urteotan ondo asko frogatu dugu gobernu eta patronalen arteko batasun estrategikoa, espresuki kontu publikoak hustu eta arpilatzen. Erakunde publikoek enpresarien errentei zergak jaitsi egiten dizkiete eta iruzur fiskalarekin beste aldera begiratzen dute; gizarte gastuan Europako azken muturrean gaude eta gizartearen beharrak ez dira babesten; aurrekontu publikoak superabit handiekin ixten dira eta... horren bitartean pobreziaren maila ez da batere jaitsi. Are eta gehiago, langabeziak dituen estaldura maila baxuekin, pobreziaren atarian kokatzen ditu makina langabetuak. Egoera horiei babesa emateko gastu soziala handitu beharrean, gastua alferrik galdutako bidean jartzen da, hori baita espekulatzaileri dirua eman eta enpresei hobariak eta diru laguntzak oparitzea.

Ezinbestekoa da greba. Enplegu-suntsiketa gerarazi nahi dugulako; negoziazio kolektiboan patronalaren xantaia astindu eta gure jendeari arnasa emango diogulako; langile jendearen aldeko politika publiko eraginkorrak exijituko ditugulako. Zentzu berean, ekonomi, lan eta gizarte politikak Euskal Herrian bertan erabaki daitezen aldarrikapena grebaren muinean egongo da. Azken urteotan, Gobernu eta patronalen eraginez, elkartasun politikak, enplegua eta gure lan baldintzen aurkako erasorik indartsuena gauzatzen ari da.

Abagune egokia da Maiatzaren Lehena langile klasearen arteko elkartasuna indartzeko eta greba orokorraren prestaketan lan sindikalaren indarra erakusteko.

**GORA LANGILERIAREN ELKARTASUNA!
21eko GREBA OROKORRAREN ALDE!
GORA MAIATZAREN LEHENA!**



m21 GREBA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA